

# **3/1989 Foru Araua, martxoaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoarena, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa**

(BAO, apirilaren 11koa)

## **7. Artikulua.**

(...)

2. Zergaren likidazio eta ordainketaren ondorioetarako ondare eskualdaketatzat hauek joko dira:

- **b)** Aitortutako adjudikazio-soberakinak, salbu Kode Zibilaren 821., 829., 1.056. (bigarren) eta 1.062. (lehenengo) artikuluetan edo oinarri berekoak diren Foru Zuzenbideko xedapenetan ezarritakoa betetzearen ondoriozkoak, eta bereziki baserria eta bere jabegoa dohainik eskualdatzearen ondoriozkoak, eskualdaketa hori Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean araupetuta dagoela.

## **17.ter Artikulua. Saka-eskubidea eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea**

1. Lur Lauan dauden ondasun tronkalak besterentzen direnean, senide tronkalek, foru deiak egin eta gero, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila aplikatu eta ondasunak lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatzen badute, peritu-tasazioaren bidez zehaztutakoa hartuko da eskuraketa-balioztat, halako tasaziorik egin bada.

2. Ondasun tronkalak besterendu baino lehen foru deirik egin ez, eta horren ondorioz, saka-eskubidea erabiltzeko, senide tronkalen batek besterentzea deuseztatzeko akzioa egikaritzen badu, senide tronkalak ordaindu behar duen prezioa zehazteko peritu-tasazioa egingo dute berariaz izendatutako pertsonak, eta tasazio horren bidez ezarritakoa hartuko da eskualdaketa-balioztat, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila aplikatuz. Kasu horretan, ordaindutako zergaren itzulketa eskatzeko eskubidea izango du erosleak, foru arau honetako 58. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe, eratziki beharreko gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoetan aipatutako ondasun tronkalak besterentzen direnean, arau tekniko horiek erregelamenduz ezarrita daudelarik, foru arau honen 44. artikuluan balioak egiaztatzeko arautzen den prozedura aplikatuko da.

## **43. Artikulua.**

Kasu bakoitzean honako Foru Arau honen 1. artikulua aipatzen dituen hiru kargatasei aplikagarri zaizkien onura fiskalak hurrengoak izango dira:

### **• I.**

- **B)** Salbuetsita egongo dira:

- **3.** Ezkontideek ezkontideen sozietateari egindako ondasunen eta eskubideen ekarpenak, hura desegitean ekarpenok ordaintzeko

ezkontideen alde egindako adjudikazioak eta horregatik ezkontideei egiten zaizkien eskualdaketak.

Salbuespen hori izango dute aitortutako adjudikazio-gaindinek ere, baldin eta senar-emazteak banantzearen edo haien ekonomi araubidea aldatzearen ondare-ondore diren ondasunen adjudikazioetatik ateratzen badira eta ezkontideen sozietatearen ondasunak ezkontideetako bati adjudikatzearen beharrezko ondorio badira.

Gauza bera aplikatuko da aurreko paragrafoetan aipatu balizkoetan, Izatezko Bikoteak arautzekoa den maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketari dagokienez.

- **6.** Lur-zatien baterakuntzak eragiten dituen eskualdaketa eta gainerako egintza eta kontratu guztiak, landa-lurreko finken nahitaezko trukaketek eragindakoak eta behar bezala baimendutako borondatezko trukaketak, baita berrogei urtetik gorako errentamenduetan lehentasunez eskuratzeko eskubidea egikaritzearen ondoriozkoak diren eta Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean araupetzen diren eskuraketak ere, baldin eta onibarra eskuratu eta hurrengo sei urtean eskualdatzen ez bada.
- **17.** . Baserriaren eta bere jabegoaren jabari osoa edo bizi arteko gozamina senide tronkalei kostu bidez eskualdatzea, baldin eta finka nekazaritzako, basozaintzako edo abeltzaintzako ustiategia bada eta eskualdatzaileak berak ustiatzen badu.

Salbuespena aplikatu ahal izateko, eskuratzailerak berak egin behar ditu, benetan eta zuzenean, goian aipaturiko jarduerak, finka eskuratu eta hurrengo sei urtean.